

Ekainak 29 GREBA OROKORRA

Metaleko langileok sektoreko hitzarmenaren alde borroka erudugarria burutu dugu. Lau egunez greba arrakastatsuak izan dira eta milaka langile mobilizatu dira.

Ekainaren 29a ez dago borroka horretatik isolatua. Lan erreformaren aurka kalera ateratzea sektoreko hitzarmenaren aldeko borrokan jarraitzea ere bada.

Krisia hasi zenetik hartu diren neurrietatik, bakar bat ere ez da izan langileen mesedetan. Murrizketak bata bestearen atzetik etorri dira eta gehiago etorriko dira. Langileok sortu ez dugun krisiaren ondorioak pairatzen ari gara.

Lan legedia eta instituzioetatik burutzen diren politika publikoak erabat kapitalaren mesedetan izaten ari dira azken urte luzeetan. Botere politikoa erabat lerrokatu da botere ekonomikoaren alde. Patronalak gobernu desberdinen aldetik paregabeko laguntza du eta berriro euren neurria eginiko erreforma onartuko dute.

Lan erreformarekin kalerapenak merketuko dira eta negoziazio kolektiboari eraso zuzena egiten zaio, enpresariei erabateko erraztasunak ematen zaizkie hitzarmen kolektiboetan adostutako soldatak eta lan baldintzak ez errespetatze-ko. Beste edukiek ere ez dute langileentzat inolako onurarik ekarriko.

Kapitalaren neurria eginiko erreforma eta politika publikoak ez dira

aski enpresarien irabazi gosea asetzeko. Horrela ulertu behar da negoziazio kolektiboan Adegiren jarrera erasokorra. Krisialdiaren testuinguruaz baliatuz bere jarrera gogortu egin du, urteetan lortutako hobekuntzak bertan behera uzteko asmoz. Herrialdeko hitzarmenaren negoziazioan aurrekaririk gabeko erasoaldi baten aurrean gaude.

Langileak jabetu dira eta erantzun paregabea eman diote argi utziz soldata eta lan baldintzetan atzerapauso berririk ez dutela onartuko.

Patronala eta instituzioen aldetik ez dago eta ez da egongo neurri bakar bat ere langileen aldekoa. Langileon indarrean sinestu behar dugu, langileok antolatu eta borrokatu behar dugu. Honela, erasoaldi guzti hauek indargabetzeko bitarteko oso garrantzitsua dugu konfrontazioa ekintza sindikala. Honen adibiderik gertukoena aurtengo negoziazio kolektiboan gertatzen ari dena da. Patronala oso gogor etorri da urteetan zehar lortutako hobekuntzak atzera bota nahian. Ez du lortu. Krisia, espedienteak, kalerapenak eta zihurgabetasuna nagusi den momentuan gai izan gara langileak borrokara ateratzeko. Bide honetatik hitzarmen duinak lortuko ditugu eta baita lan erreformaren ondorioak indargabetzea ere.

**EKAINAREN 29an
DENOK GREBARA**

Los y las trabajadoras-as del metal hemos realizado una lucha ejemplar a favor del convenio sectorial. La huelga realizada durante cuatro días, ha sido un éxito; han sido miles los y las trabajadoras-as movilizados-as.

La huelga del 29 de junio no está aislada de dicha lucha. Salir a la calle en contra de la reforma laboral, también, es dar continuidad a la lucha por el convenio sectorial.

De las medidas tomadas desde que comenzó la crisis, ninguna de ellas ha sido favorable a los y las trabajadoras-as. Las restricciones han venido una tras otra y continuaran con otras. Los y las trabajadoras-as estamos sufriendo las consecuencias de una crisis que no hemos creado.

Durante los últimos años, tanto la legislación laboral como las políticas públicas que realizan las instituciones, se realizan totalmente en beneficio del capital. El poder político se ha alineado totalmente con el poder económico. La patronal recibe una ayuda sin igual de los gobiernos; de nuevo aprobarán una reforma hecha a su medida.

Con la reforma laboral se abaratarán los despidos y se atentará directamente contra la negociación colectiva. A los y las empresarios-as se les da todas las facilidades para no respetar los salarios y condiciones laborales acordadas en los convenios colectivos. El resto de contenidos tampoco traerá ningún beneficio a los y las trabajadoras-as.

Las reformas y políticas públicas, realizadas a la medida del capital, no son

suficientes para saciar el deseo de ganancias que tienen los y las empresarios-as. Así debe ser entendida la actitud agresiva utilizada por Adeg durante la negociación colectiva. Valiéndose de la situación de crisis, ha endurecido su postura, intentando neutralizar las mejoras obtenidas durante años. Estamos ante una ofensiva sin igual en la negociación del convenio provincial.

Los y las trabajadoras-as se han dado cuenta y han dado una respuesta sin igual, dejando claro que no admitirán ningún nuevo paso atrás, a nivel salarial como en lo que respecta a condiciones laborales.

Por parte de la patronal y de las instituciones no ha habido ni habrá ninguna medida que sea favorable a los y las trabajadoras-as. Debemos creer en la fuerza de los-as trabajadoras-as; los y las trabajadoras-as debemos organizarnos y luchar. Así, para desactivar todos estos ataques la acción sindical de confrontación es un instrumento de gran importancia.

El ejemplo mas cercano es lo que está sucediendo este año en la negociación colectiva. La patronal han venido muy fuerte, intentando quitar del medio todas las mejoras obtenidas durante años. No lo ha logrado. En un momento en el que la crisis, los expedientes, los despidos y la inseguridad imperan, hemos sido capaces de que los y las trabajadoras-as luchen. Por esta vía conseguiremos convenios dignos y también desactivar las consecuencias de la reforma laboral.

**29 DE JUNIO
TODOS Y TODAS A LA HUELGA**